

Zumaiako herri aldizkaria

2000ko maiatza

BALEIKE

200 pta.

68. zenb.

● **Arbustaingo
grua: 70
urteko historia
uretara**

● **Talasoterapia
zentrua
martxan da**

● **Benito
Lertxundi eta
Pablo Milanes
udako Musika
Jaialdian**

Santelmoak
argazkitan


● **Non dago bandera?**

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

95.5 | 103.7 | 88.8 MHz

Xiberokoak

eraik beza

botza!



Xiberoko botza

ALKARREKI ERAIK DEZAGÜN XIBEROKO BOTZA!

Izen - deitura

Helbidea

Herrialdea

- 1000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- 2000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- 5000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoko Botzari
- pezetako laguntza bat ematen diogu Xiberoko Botzari

Gure kontu korrentearen ezaugarriak : Kutxa
2101 0045 91 001092747.3

Xiberokoak eraik beza botza - P.K 7 - 64 130 MAULE

Tel: 95 54 39 13 64 / Fax: 95 58 28 34 28

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 04 12
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa
Joseba Ossa
J.L. Romatet
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Gorka Zabaleta
J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Edorta Subijana
Letamendia

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Glub, glub, glub



Juan Luis Romatet

Eboluzioaren defendatzaileek diotenez, bizitzak izugarriko aldaketak izan ditu guk zapaltzen dugun Mundu honetan. Hasiera batean ez omen zegoen bizitzarik, baina halako batean ameba bat agertu zen glub-glub-glub egiten. Hainbat eta hainbat milioika urteren ondoren gizakia azaldu zen lur gainean, tartean karakolak, dinosauruak eta beste hainbat animalia eta intsektu egon zirelarik. Eboluzioaren teoriaren defendatzaileetako bat, edo hobeto esanda, teoria hori asmatu edo finkatu zuena Darwin delako bat izan zen.

Eboluzio kate hori ez da gizakiarekin amaitzen. Darwin garai honetan bizirik balego, ziur nago harrিতa geratuko litzatekeela gure inguruan gertatzen den beste eboluzio mota batekin, deboluzioarekin alegia: gizakiak atzera egiten du amebaren mailara heldu arte. Aldaketa hori aurrera eramateko ez dira behar milioika urte, nahikoak dira lau edo bost egun. Deboluzio hori azken bi asteburu hauetan askotan ikusteko aukera izan da Zumaiako kaleetan.

Ostiral arratsaldean, gizakia etxera heldu, dutxatu eta arropak aldatu ondoren kalera irten da. Lehen gaua lorik egin gabe pasa ondoren, eta janari bezala sanmiguelak eta kalimotxoak litroka edan ondoren, Homo Sapiensa historiara pasatzen da. Pare bat egun pasa ondoren, lehen gizakia zena dinosaurua bezain baldar dabil kalean zehar. Hirugarren eguna lo egin gabe pasa ondoren, karakol bat bezala lerdea dariola ikusiko dugu kalimotxo bat eskatzen, barran helduta. Bosgarren eguna pasa denean, gizakia ameba bihurtu da. Nahikoa da berarekin hitz egitea hori frogatzeko: "Hi, Xamuel, ze itek karretera erdiyan exerita?". "Glub, glub, glub" gizakia zenaren eta orain ameba denaren erantzuna.

Honekin nire teoria frogatutzat geratzen dela uste dut. Hala, hurrengo arte!


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



70 urtetako historia uretara

Santelmoak hasteko pare bat egun besterik falta ez zirela, arranplako grua behera egin zuen eta Urola ibaira erori zen. Erorketa tamalgarria bada ere, zorte handia izan da, erori zen momentuan ez baitzegoen inor grua azpian. Grua erori eta minutu gutxira jende ugari hurbildu zen arranplara. Jendea nahiko penatuta agertzen zen, agian bazekitelako herriaren historiaren zati handi bat momentu hartan ur azpian zegoela.

Ondo iragarritako albistea zen grua erorketa. Grua bera ari zitzaigun azken hilabeteotan zumaierro bere egoeraren berri ematen. Adineko pertsona bat izango balitz bezala, gero eta makurrago zegoen. Egoera txar horren arrazoi nagusia, grua adinarenaz gain, makina eta zolua lotzen zituzten bi tiranteak kentzea da. Dirudienez, edo hala esan digute behintzat, bi tirante horiek nahiko egoera txarrean zeuden azken hilabeteetan, eta soltatzeko arriskua omen zegoen. Gruaren inguruan egoten ziren adineko pertsonentzat nahiko arriskutsua izango zelakoan, grua eta lurra lotzen zituzten bi tiranteak kentzea erabaki zuen Zumaiaiko



Udalak. Orduetik, grua ibai alderantz okertzen hasi zen.

Noski, hasieran ez zen asko makurtu, baina bertan ibiltzen ziren zumaierroak ohartu ziren okerdura horretaz, eta bai abisua pasa ere. Hilabeteak pasa eta ez zen ezer egin grua egoera (edo okerdura) hobetzeko, eta esan bezala apirilaren 26an behera joan zen. Nahiko ironikoa emango du, baina grua erori baino egun bat lehenago, guk Udaleko langile batekin hitz egin genuen grua egoerari buruz, eta berak esan zigun momentu hartan ez zegoela erortzeko arrisku handirik. Nahikoa izan zen gaiari buruz hitz egitea grua euskarriak gehiago ez jasateko.

Aurretik aipatu dugunez, grua erori zen momentuan zorte handia izan zen, azpian inor ez baitzegoen. Hala ere, aipatu behar da grua txalupa baten gainera erori eta ondora joan zela.

Eta orain zer egin behar duten gruaekin? Aldizkari hau kalera atera-

tzeko momentuan ez dakigu gauza handirik. Ziur dakigun gauza bakarra grua ibaitik atera eta Udalaren eraikin batean gordeta dagoela da. 1930ean eraikitako grua erori eta denbora gutxira, Donostiako Ontzi Museoa Udalarekin harremanetan jarri zen, interesatuta baitaude grua museora eramateko. Hala ere, badirudi Zumaiaiko Udalak grua berriz bere tokian ezartzeko asmoa duela, edo hala aitortu diote museoko ardura-dunei. Teknikoak ez bagara ere, ez dirudi oso lan zaila grua berriz lehengo lekuan osorik jartzea: egur berriak jarri, burdinak txukundu, eta aurrera.

Zumaiaiko historiaren beste zati asko denak txikitu edo pikutara bidali izan dira. Espero dezagun oraingoan grua berritu eta lehengo tokian jarriko dutela Zumaiaiko Udaleko ardura-dunek. Hala espero dugu zumaier askok.

◀ **JUAN LUIS ROMATET**

7 MARES
7 MARES IDOZUAK

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA

agustin
OL HARAKINA

Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Negar egin dezagun. Arranplako grua erori da.

Urtetan egon da Arbustaingo grua zaharra moila eta itsasoaren bista oztopatzen. Herdoildutako burni eta egur zaharrak portuaren sarrera begiratzeko marko moduan erabili ditugu 1931n jarri zuten momentutik aurrera. Zumaiaren iragan komertziala eta itsasontzien ekonomian oinarritutako jarduera akordarazten zuen elementu bitxien artean, bitxienetakoa zen.

Orain itsasoa ez da Arbustaindik ikusten. Iragana ezabatu behar da eta harri faltsuz estalitako zementuz bete dugu badia. Herdoila eta grasa zikinak yatez eta kanoaz ordezkatu behar omen dira. Fabrika zaharrak zalan-tzazko modernitatea azaldu nahi duten kirol kaiaren azpiegiturak ordezkatu ditugu. Denok itsasora begira baina markako kamiseta eta zapatekin.

Zerbaitek enbarazo egiten zuten Zumaiako etorkizun berrian eta orain dela urtebete, gutxi gorabehera, bukaeraren hasiera izan zen herdoildutako gruentzat. Itsusiak omen ziren grua sostengatzen zuten euskarriak, estrukturaren zatia (grua bera alegia) izango ez balira bezala. Zergatik ez kendu? Ideia ederra,



“arriskutsuak” ziren bi burni handi kendu eta grua “mantendu”.

Udaleko teknikoen arabera ez zen ezer gertatuko (eskerrak norbaitek kalkuluak egiten dituen herri honetan!) eta ezjakinen iritziei kasu eginda, kendu zizkioten eraiki zutenean zerbaiterako jarri zizkioten euskarriak. Hori bai, jakin gabe ondare industrialaren zerrendaren barruan zegoela eta horretaz arduratzen denari

aholkurik eskatu gabe, zertarako? guk dena dakigu-eta.

Txatarrerera kentzera etorri zenean, Donostiko Ontzi Museotik deitu zuten geldiarazteko egiten ari ziren triskantza. Udaleko teknikoak, berriz, entzungogor egin eta inor baino gehiago dakigu, burni pusketak txatarrerera eraman ditu eta utzi bakean erantzun zioten horretan aditua den Museoko zuzendariari.

Hilabete pasa ondoren, gero eta okerrago zegoela ikusi arren, erori egin da arranplako grua. Oh! Hau pena! Negar kolektiboa egin dezagun eta Diputazioak balorea ematen badio, 50 milioi gastatuko ditugu berriz jartzen. Gure dirua erraz gastatzen da. Erortzen laga dute eta orain dirutza gastatu beharko dugu berreraikitzen. Baina non? Rompeolasekin egin zuten bezala, kirol portuko elementu dekoratibo moduan polita geldi daiteke. Paseo luzeetan ikusteko ederra.

Hala ere, memoriaz hustutako gauzak zertarako gorde?

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

Y
I
N

Y
I
N

GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

ANA
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Lurrazala altza gabe egingo da saneamenduko obra gehiena

Zangak udazkenerako bukatuta egongo dira



Ubiri enpresari esleitu zaizkio saneamendurako lanak, seihun miloiko aurrekontuarekin, erdiak Eusko Jaurlaritzak eta beste erdiak Uren Partzuergoak jarriak, eta amaitzeko urtebeteko epeaz.

Joan den apirilean hasi ziren Julio Beobide ibiltokia zulatzen kolektore berriak sartzeko. Dagoeneko Pulpo parera iritsi dira eta Zubi Berriaren pareraino jarraituko dute zanga horrekin. Laister batean, berriz, gasolineratik Zubi Berriaren parera etorriko den zanga berri bati ekingo diote. Gero, Forondako aldapatik behera egingo den zanga bat lotuko diote horri, eta Amaia plaza aldera

ireki dutena Itzurun eta Larretxo arteko bidegurutzeraino iritsiko da.

Udaran trafikoa gehitzen denez, lan horiek uztaileko bukatu nahi dituzte, Txomin Agirre kalea herrirako sarbide bakarra baita eta arazoak sor baitaitezke.

Beste adar bat Aira Durex aurretik hasiko da eta Basadi kale guztia zeharkatuko du. Zanga horretan kolektore haundixeagoa sartuko dute, herria Estazio aldea eta Aira Durex atzealdetik hazi daitekeela aurreikusten denez, etorkizunean sor daitezkeen ur beltz berriak jaso ahal izateko.

Narrondo ibaiari Axular pasealekuaren aldetik espaloi berria egin zitzaionean kolektoreak sartzeko aprobetxatu zen eta alde horretan gelditzen den lan bakarra Jadarre kolektore horrekin lotzea da.

Lan horiek udazkenerako bukatuko dituzte.

Lan horiek guztiak sistema tradizionalarekin egingo dira. Hau da, lurra altza, zanga egin, kolektoreak sartu eta berriro tapatu. Gainerakoak 'hinca' sistemaren bidez egingo dituzte.

Sistema berria da 'hinca' hori. Garestia baina herriko bizitzarako askoz arazo gutxiago sortzen dituenez oso baliagarria da.

Sistema horrekin ez da zangarik egiten. Putzu bat irekitzen da, lehenengo perimetroan 'pantaila' batzuk sartzeko dira, gero pantaila horiek zementuz beteaz eta azkenik barruan gelditzen den lurra atera egiten da. Putzu horretan sistema hidrauliko bat kokatu eta honek bultzata, kolektorea bera pixkanaka lurrazpian zuloa eginaz joaten da muturrean kokatzen zaion taladro handi batekin eta GPS sistemadun ordenagailu baten bidez gidaturik. Azkenik, ingeniariak aurrez kokaturiko puntuan bigarren putzu bat egin eta bertatik puntako taladroa ateratzen da.

Sistema horren bidez putzuak dira lurrazalean egiten diren obra bakarrak, gainerakoa makinaren bidez egiten den sator lana da.

Sistema horren bidez zeharkatuko da Narrondo ibaia. Eta baita ibaitik eskualdera gelditzen den guztia, hau da,



AUTO-ESKOLA





- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 861018



Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521



Basadi auzategitik eta Gernika Pasea-
lekutik bonbeo estaziora eta handik
E.D.A.R.erako bidea ere bai. Zenbait
kolektore gurutzatzen diren puntuetan
edota kolektoreak norabide aldaketa
bat eman behar duenean burutzen
dira batik bat.

Ura kolektoreetatik barrena joateko
inklinazio bat izan behar dute kolek-
toreek. Horrela, metro eta erdiko
zangarekin hasi ziren Julio Behobide
ibiltokian, zazpi metroko sakoneran
pasatuko dute ibaia Zubi Berriaren
paretik, eta hamaika metroko
sakoneran iritsiko dira ur zikin guztiak
bonbeo estaziora. Han bi bonba
indartsu ezarriko dira, eta uren
sarrera erregulatuko duen sistema bat,
ekaitzek ekar ditzaketen oldeek
bonbak apur ez ditzaten.

◀ ANTOKA AGIRRE

Ikazoka Durangon

Ikastolen ekimenez, maiatzaren 18tik
21a arte Ikazoka feria egingo da
Durangon. Batez ere hezkuntzaren
inguruko kontuak erakutsiko dira:
didaktika, metodoak, teknologia,
informatika, ikus-entzunezkoak,
hizkuntzak, ikerketak, eta abar.

Baleike ere han egongo da, azokaren
sarrera inguruan, Euskara-Elkarte eta
herri aldizkariaren Topagunearen
txokoa.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdik
- 24 ordu
- zeure etxean

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

Asentxio Elustondo gogoratuz "In memoriam"

2000 urteko Aste Santua berezia izan da. Nire eta gure bihotzetan gordetik geldituko den Aste Santua. Iluntasunez eta argiz betetako eguna. San Telmo jaien ondoren kalera irtengo den Baleike honetan, Asentxioren pertsonari buruz hitz egitea nahi izan duzue, eta hala egingo dut.

Aste Santuko egun horietan nire pertsonan bizitu ditudan esperientziak era askotakoan izan dira: samina, tristura, nahigabea, sorpresa, itxaropena eta fedea. Pazko asteko gau batean idazten ditut hitz hauek; nire bihotza oroitzapen onez beteta dago eta oroitzapen on horiek zuekin elkarbanatu nahi ditut; zuekin batera gogoratu nahi dut Asentxio.

Oso gogoan daukat Asentxio Elustondo ezagutu nuen eguna, artean ni seminarioan sartu berria zen mutikoa nintzen, 18 urtekin nere bizitzako lehenengo gogoeta jardunak egin behar nituen. Zeinekin eta Asentxiorekin egin genituen San Inazioaren, bere San Inazio kuttunaren "Ejertzioak". Non, eta Lazkaoko Beneditarretan.

Seminarioko urteetan behin edo behin berarekin topo egiteko eta bere hitz argia eta sakona entzuteko aukera izan nuen.

23 urte nituela iritsi zitzaidan "diakono" ordenazioa jasotzeko eguna, hau, apaiz egin baino urtebete lehenago izaten da, azkenean iritsi zitzaidan seminariotik irteteko garaia eta parrokia batera joateko garaia. Gotzainaren erabakiz, Zumaia eta inguruan sortzen ari zen Saiatz Ibarrara bidali ninduten, Asentxiokin bizi eta bere laguntzaile izateko. Apaiz ordenatu ondoren, zuetako askok dakizuen bezala, Asentxioren ondoan jarraitu nuen, oso pozik jaso genuen berria izan zen.

Nire lehenengo destinoa gizon eta apaiz jakintsu eta on baten ondoan

bizitzeko aukera izan dut. Nolako zen urte eta erdi honetan ezagutu eta estimatu dudan gizona?

- Itxuraz gizon serioa zen

Asentxio, lotsati samarra. Eguneroko bizitzak erakutsi zidan gizon alai eta bromazale batekin bizi nintzela. Ixilik eta apaltasun osoz pertsonak maitatzen zituen gizon batekin bizi nintzela ohartu nintzen.

- Jakinduria handiko gizona: jakin-mina zuen Asentxiok eta ez bakarrik teologian, baita historian eta beste gai askotan ere. Bere jakinduriaren erakusgarri utzi dizkigu berak idatzitako liburuak.

- Langile borrokatua. Ezagutu genuenok ez dugu erraz ahaztuko lanean igarotzen zituen orduak, bulegoan eta hainbeste bileratan! Bere letra txikiarekin orrialdeak eta orrialdeak betetzen zituen. Lan egiten zuenean, ilusioz eta itxaropenez egiten zuten, bere izate guztia horretan jarriz.

- Fede handikoa eta otoizlaria. Fedea zen bere bizitzako ardatza, bere indarra. Horixe zen eskuetan zeukan altxorrik handiena eta maitatuena. Altxor bat eskuetan eta bihotzean asmo bat: sinesmen horren berri guztiei eskaintzea.

- Elizgizona: Asentxiorentzat eliza ez zen gauza abstraktu bat, berak bere familiazat zeukan. Igaro zen leku guztietan bere ahalegina hauxe izan zen: Eliza, kristau elkarte sortzea. Gaur egungo gizon-emakumeei Kristoren berri ona hotsegingo zuen kristau elkarte sortzea.

- Herri maitalea: bere herriaren arazoak eta itxaropenak bereak egiten zituen. Bere herriaren historia, geografia eta ohiturak ederki ezagutzen zituen, zer esanik ez bere



hizkuntza. Berak maitatzen zuena, maitatzen erakutsi zigun bere hurbilean geundenoi.

- Olerkaria eta musikalaria: bazekien sentipenak eta pentsamenduak paperean, bertsotan edota pentagraman jartzen. Zumaiaiko familia askok izango dute berak festa edo familia gertakizun bat zela-eta egindako bertsoak. Musika ere maitatzen zuen, zenbat aldiz entzungo ote genuen bere harmonium zaharrean musika egiten! Garizuman, bereziki maite zuen musika entzuten zuten: Juan Sebastian Bachen San Mateoren Nekaldia.

- Etorkizunera begira bizi zen gizona: nahiz eta sarri pasadizo zaharrak kontatu, ez zen pasatako garaietan murgildurik bizi. Azkeneko urte hauetan bere ahalegin guztiak etorkizunera begira Kristau Elkarte indartzen igaro zituen. Horren erakusgarri da berak bereziki bultzatutako Saiatz Ibarra; Ebanjelioaren zerbitzura egongo zen Elizaren alde lan egin nahi zuten.

Hauexek dira nik hurbiletik ezagutu nuen Asentxio Elustondoren ezaugarrietako batzuk. Beste asko aipa daitezke, bera bezalako pertsonak ezin baitaitezke hitz gutxi batzuetan bildu; hau baino askoz gahiago zen, nire ikuspegi apala eta nahikorra eskeintzen dizuet bakarrik.

Beno Asentxio! Bukatu duzu ibilaldia, orain, zauden lekutik lagun gaitzazu geurea egiten.

◀ AITOR EMAZABEL, APAIZA

Zelaia hotela, hiru izarreko talaia Itzurungo labarrean



Bi urte iraun ditu obrak. Kanpotik Itzun-Zelai jauregiaren erreplika da eraikin berria, eta barruan 'Itzurun' talasoterapia zentroa, 'Abegileku' jatetxea eta 'Zelaia' hotelaren inagurazioa ospatuko da maiatzaren 12an, arratsaldeko 6etan. Hirurak Itzurun hotel gunea S.A. enpresak daramatza, baina gainerako alderdi guztietan independenteak dira elkarrekiko. Obrako langileak eta hoteleko langileak azkenengo ukituak ematen ari dira dena prest edukitzeko.

Zorion Gojenola lekeitiarrak, etxeko nagusiak, besoak zabalik hartu gaitu eta elkarrizketarako eseri aurretik goitik-behera erakutsi digu 'inbentu' guztia.

Eraikinak sei solairu ditu. Behetik hasita, aparkalekuan sartu irten bat egin eta bigarren solairura igo gara berehala, talasoterapia zentroa ikustera. Aparkalekua eta talasoa, biak ere, eraikinaren azpian ez ezik, horren aurrealdean dagoen terraza nagusiaren azpitik zabaltzen dira. Lehenengoa argi fluoreszente batzuek argitzen dute, bigarrenkoa, berriz, sabaian gora terraza nagusira irteten

den kupula batetik eta labarrean eskegita dagoen terratzaxo batera jotzen duen aurrealdeko kristalera sartzen den argi naturalak argizatzen du. Igerileku ikusgarri bat da elementu zentrala. Gune eta txoko ugari ditu, bata burbuilekin, bestea ur azpiko txorroekin, bestea ertzean kokaturik goitik behera kaskada moduan ura botatzen duten txirrista moduko batzuekin, bestea ura gorantz botatzen duten metalezko tubo luze batzuekin... Ikusgarria. Ura falta da ordea. "Administrazioek eman beharreko baimenak lortuak ditugu ura itsasotik bonbeo sistema baten

bidez ateratzeko, baina obra Costas-en esku dago, eta egin bitartean xurgapen sistema probisonal bat montatzeko esan ziguten" azaldu digu Zorionek. "Hasiera batean hondartzaren eskuinaldeko 'pistina'tik xurgatzeko asmoa genuen, baina ingeniari batzuk zuzenean behera eginda merkeagoa izango zela saldu zidaten. Guztia montatu eta ez zen tanta bat ere atera. Azkenean garestiagoa suertatu da alternatiba hori, eta lehenengoari ekin diogu berriro. Maiatzaren erdialderako martxan egongo da guztia" dio. Ura itsasotik hartu eta parkinaren solairuan dagoen



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko enopa eta artisautza



Basadi, 3

ur depositoan jasoko da. Handik terraza nagusiaren ondoan mendiari itsatsitako eraikin batean kokaturiko depuradora eta kalderetatik pasako da, eta azkenik talasora irtengo da. “33 gradutan egongo da ura, eta sor daitekeen kondentsazioa kentzeko depuradora eta kalderen ondoan kondentsazioaren aurkako makinaria ere badaukagu” gaineratu du.

Ikusten denez, bainuena da muntaia handiena, baina bestelako zerbitzuak ere eskainiko ditu talasoterapia zentroak. Horrela, ohiko aldagela eta dutxez gain, sauna lehorrerako eta sauna hezerako kabina bana topa ditzakegu bertan, baita masajeak hartzeko gela batzuk ere, eta etorki-zunean bestelako terapia batzuk ezartzekotan dira.

“Talasoak, jatetxeak bezala, bi sarrera ditu. Bata hoteleko bezeroentzat eta bestea zuzenean kanpotik sartzeko. Gainera, prezioak ere edonorentzako modukoak izango dira. Izatez jatetxea eta talasoan herriko jendea espero dut kanpoko baina gehiago” dio Zorionek.

Igogailua hartu eta hurrengo solairura irten gara. Sukaldea, 125 pertsonarentzako janleku eder bat eta barra bat kokatzen dira hemen.

Buelta bat eman eta terrazara. Bi maila ditu. Zabalena, datozen guztientzat irekia, eta eskailera batzuetatik lehen aipaturiko talasorako makinaria gordetzen duen eraikinaren gainera igota, bodentzako gordeko dena. Bigarren hori kristalera batekin itxi nahi dute, baina arazo batzuk izan dituzte eta oraindik ez dira muntatzen hasi.

Laugarren solairuan harrera, ofizina eta zortzi gela daude. Eta laugarren eta bosgarren solairuetan hamarna gela. Beraz guztira hogeita zortzi gela, erdiak itsaso aldera begira eta beste erdiak beste aldera begira.

Hiru izarrekoa izango da hotela. “Hoteletako bezeroen %70 hiru izarrekoetan ibiltzen dira. Bikoa pare bat mila pezeta baino ez da merketzen eta kalitate-prezioa baxuagoa da. Lekuatik laukoa ere jarri genezakeen, baina nahiago izan dugu hotela merkeago ipini eta gehiago nahi duenarentzat talasoterapia bezalako aukerazko balore bat gehitu” esplikatu digu. “Guk ez dugu aberaskilori nahi. Horiek bi zerbitzari eta maiordomoa izaten dituzte etxean eta ondorioz lau zerbitzari eta bi maiordomo nahi dituzte beren inguruan pelota egiten hotelera doazenean. Nahiago dugu jende normala, gaztea. Sobran batere izan gabe dirua disfrutatzen dela dakiena” gaineratu du. Tamaina eta bista desberdinak dituzte gelek eta ondorioz prezio ezberdinak, baina guztiak ere zortzi mila bederatzi mila inguruan omen daude, “Zarautz hotelaren antzera eta seguraski Zestoako balnearioa baino merkeago”, Zorionen hitzetan.

Proiektua eta obra

Kristoren trotea darabilkite hotelean. Eraikinetik buelta hori ematen genuen bitartean hiruzpalau dei izan ditu Zorionek, eta langile mordoa etorri zaio, bata giltza batzuen eske, bestea faktura batzuekin, hirugarrena kafe makinaren inguruko kontu batzuekin... Gu hartu aurretik garbiketarako produktuen bi saltzailerekin ari zen komuneko papelaren inguruan

eztabaidan. Ez zuela behar eta besteek ezin ententitu. Gela bateko komunera eraman gaitu azkenik. Komuna esan dut, baina hiperkomuna esan behar nuen. Komun ontziaren ondoan panel bat dauka botoi mordoarekin. Bati eman eta tubotxo bat jeitsi da komun barrutik. Behera iritsi eta ras, ur bero txorroa. “Justu txulora” dio Zorionek. Beste botoi batekin haize beroa jartzen da martxan. Gainerakoak ez omen daki zertarako diren.

Nekatuta baina gustura ikusten zaio. “88tik nabil proiektu honekin bueltaka, eta azkenean lortu dut burutzea” dio. Bizitza guztia hostalaritzaan ibilitakoa da. Txino Bengoa kafetegia ireki zuen lehenengo Bermeon, diskotekaren bat ere ibili zuen, eta ondoren Bartzelonan ‘El Aitor’ eta ‘Amalur’ jatetxeak zuzendu zituen. “Goi mailako euskal sukaldaritza eskaintzen genuen eta arrakasta itzela izan zuten” gogoratzen du. Etxera itzultzeko gogoia sartu zitzaion, ordea, eta 80ko hamarkadan toki bila hasi zen. Eta Zumaia aukeratu zuen “Posibilitateak zituela ikusten nuen, eta batere esplotatu gabe zegoela. Getariak, esaterako, izugarri funtzionatzen zuen, baina Zumaia, gertu egon eta oso toki ederra izan arren, erabat geldirik zegoen zentzu horretan” dio. ‘Abegileku’ jatetxea jarri zuen, baina ez zitzaion ondo atera. “Bartzelonatik goi mailako sukaldaritzaren ideiak in etorri nintzen, baina hemen lehia handia zegoen, eta egun seinalatuetatik kanpora jende arrunta ez zen animatzen. Gainera tokia txiki samarra zen eta bodetarako oso mugatuta zegoen” arrazoitzen du. 88an Itzun-Zelaiko jauregia erosi eta proiektu honekin hasi zen lanean. “Dirurik ez



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

**EGUZKI
PUB**



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



nuen ordea, horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko eta inor ez zen animatzen inbertitzera” dio. Duela hiruzpalau urte lortu zituen inbertsoreak. “Haizeak aldatu egin dira. Dirua duen jendea konturatu da turismoak eta zerbitzuen sektoreak potentzialitate handia duela hemen, eta mugitzen hasi dira” jarraitu du kontatzen. Bizpahiru industriari dira

dirua jarri dutenak. “Nire lana barkua aurrera eramatea da. Hau guztia martxan eduki eta hotela, Itzurungo ura, iodo eta mineraletan inguruetako aberatsena, hondartza, eta herria bera ezagutzera ematea” dio.

Eraikuntza lanak 98ko maiatzean hasi ziren, eta Itzun-Zelaiko jauregiaren erreplika da altza duten eraikin berria. “Udalak jauregiaren kanpoko itxura ez

aldatzearen baldintza jarri zuen, eta paretak uste baino egoera txarragoan zeudenez bota egin behar izan genituen arren, aurrekoaren kalkatua da eraiki duguna” dio. Haundixeagoa ematen duela komentatzen diogu. “Altuera berdina da. Gertatzen dena da lurrean zuloa egin eta beherantz bi solairu gehitu dizkiogula. Gero, semisotano bat zuen jauregiak eta guk garbitu egin dugu inguruko lurra orain jatetxea dagoen solairua erabat agerian utziz, eta lehen sabaia oso altua zuten bi solairu zituen gainean eta guk goiko hiru solairuetan banatu dugu espazio hori” erantzun digu.

Hasiera batean eraikuntza lanek urte eta erdi iraungo zutela aurreikusten bazen bi urte izan dira azkenean. “Arazo batzuk sortu dira. Paretak bota beharra, esaterako. Lehen bezala uztea aurreikusten zen eta proba dezente egin behar izan ziren gero. Talasoterapiarako urarena. Orain bodetarako terrazarentzako itxiturarena... baina normala ere bada horrelako obra batean atzerapen pixka bat egotea. Jainkoak nahi badu maiatzaren erdirako irekita egongo da” kontatu digu.

Bi-hiru astetan gonbidatu batzuk izan dituzte martxa hartzen hasteko proba moduan. “Lagunak-eta gonbidatu ditut. Izan ere, langileak berriak dira eta martxa hartu behar dute. Bat kanpinean jardundakoa izan daiteke eta azkarregi mugitu, bestea berriz inoiz ibilia ez delako motelegi... Egun hauetan txapa sartzea tokatzen zait irekitzerako dena ondo joan dadin” dio. Eta halaxe ditugu lanean. Lekua-rekin bakarrik erdia baino gehiago eginda dute behintzat.

◀ ANTOKA AGIRRE

Arantza Aramendi
EGUZKI
 G. INMOBILIARIA
 Harategi kalea, 25 behea
 943 86 22 65 - 609 46 56 37

ekin
 elektrizitatea, s.l.
 instalazio elektrikoak
 instalazio musikalak
 antenak - parabolikoak
 akumuladoreak
 portero automatikoak
 telefonia

Televés
 Instalador
 Oficial


MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel./Faxa 943 - 143097
 629 - 450777

CANAL+

SATELITE
CANAL DIGITAL



“Izugarrizko denboraldia izan da”

Abel Yeregik 20 urte daramatza Pulpon, 17 urterekin jubenetan jokatzeko hasi zenetik. Maila ezberdinetan entrenatzaile, zuzendaritzako kide, duela lau urtetik presidente lanetan ari da. Aurten eskubaloia urte paregabea osatu duela eta, balantzea egin eta datorren urterako dituzten helburuak jakin nahi izan ditugu.

■ Abel, presidente karguan, entrenatzaile, orain Udalean ere ari zara lanean zinegotzi bezala. Denetarako denbora bai?

Ez nik nahiko nukeen bezala. Azkenengo urtea izan da presidente eta entrenatzaile aritu naizela. Aurten jubentzat entrenatzen ere Txintxi (Juanma Txintxilla, Lehen Mailako entrenatzaile) aritu da gutxi gorabehera. Datorren urterako ikusi behar dugu entrenatzaile postuak nola beteko ditugun, baina nik bietan ezin dut.

■ Aurtengo denboraldia Pulpok inoiz egin duen onena izan al da?

Izugarrizko denboraldia izan da aurtengoa. Zaharrekin hasita, denboraldi hasieran nork esango zuen mailaz igo eta hirugarren geldituko ginela. Gure helburua zen sailkapeneko erdialdean amaitzea, baina inoiz ez genuen pentsatzen hain goian egotea. Emakumezkoak txapeldun gelditu dira partidu bakarra galduta eta mailaz igotzea lortu dute. Datorren urtean Euskadiko Txapelketako A Mailan jokatu dute. Jubentzat (mutilak) bigarren gelditu dira lehenengoarekin berdinduta, eta kadeteak laugarren. Bi maila horietan sailkapen bateratua egiten da, eta hor Pulpo izan da Euskadiko txapeldun. Eta neska kadeteak laugarren izan dira.

■ Pulpok Espainiako Lehen Mailan jokatu duen lehen urtea izan al da?

Hala da, bai. Orain dela urte batzuk Logroñon lortu genuen maila igoera, baina jokalariekin hitz egin genuen eta uko egin behar izan genion, ez baitzeuden hara eta hona ibiltzeko prest. Duela pare bat urte hortxe ibili ginen, eta azkenengo hau joan den urtean lortu genuen, Egea de los

Caballerosen (Zaragoza). Hor berriro hitz egin genuen jokalariekin, eta baiezkota eman ziguten eta aurrera.

■ Datorren urterako aldaketa dezente egongo omen dira Lehen Mailako plantilan.

Jubeniletatik zazpi igoko dira. Gero ikusi beharko da zenbatek utziko duten eta zenbatek jarraitu. Denboraldia amaieran jende askok izaten du uzteko gogo, erreta amaitzen baituzu, nahiz eta oso ondo ibili. Hori guztia Santelmoak pasa ondoren hasi beharko dugu argitzen. Jendea baldin badago, Lehen Mailan segitzeko asmoa dugu. Horrelako denboraldia egin eta gero merezi du berriro probatzea.

“Zumaian eskubaloia beti izan da anaia pobrea, eta ez dut diruagatik esaten. Futbolak beti erakarri izan du jende gehiago. Aurten, ordea, Lehen Mailako taldeak jende asko bildu du kiroldegian”

■ Entrenatzaileak ez omen du segitzeko asmorik.

Oraingoz hori dio. Laguntzeko prest dagoela esan digu, astean zehar entrenamenduetan eta horrela, baina astero-astero partiduetara joan eta abar ez. Horixe da une honetan daukagun arazorik handiena. Aukera bat edo beste badago, baina hori guztia hitz egin beharra dago ezer aurreratu baino lehen.

■ Beraz, aldaketa dezente egongo dira datorren denboraldirako.



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



ENARA, S.L.

INPRIMATEGIA



Amaia plaza, 15
Tel. 862458

Entrenatzaile mailan bai, hala izan beharko du. Zuzendaritzan nik uste dut berdinak jarraituko dugula.

Aurrekontua ia bikoiztu

■ Lehen Mailan aritzeak aurrekontua zenbaiterainoko eragina izan du?

Ia bikoiztu egin zaigu. Aurreko urtean lau milioi ingurukoa genuen eta aurten 7,5 milioikoa. Pentsatu behar da bidaiak egin behar direla kanpora, Kanarietaraino joan behar izan dugula, eta horrek asko igotzen ditu gastuak.


■ Eta nola moldatu zarete jauzi horri aurre egiteko?

Atez ate ibili behar izan dugu. Enpresa batzuk laguntza handia eman digute. Udalak urteroko sistema erabili du dirulaguntzak emateko, eta pentsatzen dut aurten gehiago egokituko zaigula, emaitza hobek izan ditugulako.

“Ia bikoiztu egin zaigu. Aurreko urtean lau milioi ingurukoa genuen eta aurten 7,5 milioikoa”

■ Bai, baina talde batek laguntza berezi bat behar badu jauzi handia eman duelako, agian sistema horrek ez du balio.

Bai, baina beraiek diote mundu guztiak behar duela diru gehiago. Garbi dago aurten 3,5 milioi gehiago behar ditugula aurrekontua osatzeko. Hor ibili gara kamixetak saltzen eta nahikoa ondo joan zaigu, partiduetan sarrera jarri dugu eta bazkideak ere lortu ditugu...



Bai, eta jokalariek dirua jarri behar izan dute Kanarietarako bidaiak ordaindu ahal izateko.

Maila handia

■ Ez al da, agian, Pulporen meritua ez dela behar bezala neurtzen?

Euskadi mailan, Pulpo goian dagoela esatea ez da inolako harrokeria. Bidasoak Ohorezko Mailan du taldea eta orain bigarren taldea ITE Hondarribia du, Lehen Mailan, baina hortik behera jubenilak eta kadeteak. Zarautzek beti izan du guk baino maila handiagoa, gizonetzkoetan eta nesketan. Eta gero Arrate dago, eta aurten gure mailan aritu da euren lehen taldea. Pulpon une honetan 80 gazte inguru ari dira jokatzeko.

■ Baina jendeak ba al daki benetan eskubaloien maila baloratzen?

Zumaian eskubaloia beti izan da anaia pobrea, eta ez dut diruagatik esaten. Futbolak beti erakarri izan du jende gehiago. Aurten, ordea, Lehen Mailako

taldeak jende asko bildu du kiroldegian. Harmailak beteta ikusi ditugu behin baino gehiagotan, eta jendeak kalean gehiago galdetzen digu zer egin dugun. Ikusiko dugu taldeak behera egiten duenean zer gertatzen den.

“Pulpon une honetan 80 gazte inguru ari dira jokatzeko”

**■ Zenbat urte ditu Pulpo Kirol Elkar-
Elkarteak?**

Eskubaloi taldea Pulpo Kirol Elkartetik sortu zen, eta lehen estatutuak egin baino lehenagotik jokatzeko da eskubaloian Zumaian. Nik 20 urte daramatzat klubean, eta aurretik jende askok jokatu zuen, moilan jokatzeko zutenean. Joan den urtean plaka batzuk banatu ziren eta han 25 urte agertzen ziren, baina ziur nago dezente gehiago direla.

◀ GORKA ZABALETA

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95

expert 

ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6 Tel. 861078



Jubenilak bikain Espainiako Txapelketan

Euskadiko Txapelketan Urdulizekin lehen postuan berdinduta amaitu eta gero, Pulpoko jubenilek Espainiako Txapelketan hartu zuten parte Santelmotako lehen asteburuan, Zaragozako Cuarte de Huerva herrian. Zumaiarrek Zaragozako Maristas, Madrilgo Sa-Fa, eta F.C. Bartzelona izan zituzten aurkari. Lehenak bakarrik zuen azken faserako txartela, eta zumaiarrak bigarren izan ziren, lehen bi partiduetan irabazi ondoren azken norgehiagokan Bartzelonaren aurka galduta baituzten. Kataluniarrak izan ziren lehenak. Partiduetako emaitzak: Maristas 30-38 Pulpo; Sa-Fa 26-27 Pulpo; Pulpo 25-34 Bartzelona. Pulpoko entrenatzaileak oso pozik agertu dira gazteek emandako mailarekin, joko ona erakutsi baitute partidu guztietan. Bartzelonaren kontra kataluniarren plantila zabalagoa erabakigarria izan zen bigarren zatiko bosgarren minututik aurrera, ordura arte 15nako berdinketa erakusten baitzuen markagailuak. Bestalde, aipatzekoa da bertako jarraitzaileek zumaiarren kiroltasuna txalotu zutela torneoa amaitu eta gero.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

Amertxe
Foto

**profesionalak gara
etor zaitez!**

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Umeak baino okerrago

Santelmoetan umeak baino kerrago ibili ohi gara askotan, baina festetako jai giro horretan gaiztokeria txikiak barkatu egiten dira. Gure herriko festa kuttunenak banderarik gabe uztea, ordea, ez da broma. Santelmo bigarrenean Kofradiako bandera falta zela argitu zen eguna, herri-tarren harridurarako. Goizaldean norbaitek lapurtu egin zuen, burdinezko mastila ere errotik hautsita. Aste osoan banderaren bila aritu ziren, baina ez zen agertu, eta inork ez omen zuen ezer ikusi. Batzurentzat banderak trapu hutsak dira, baina jende askok min handia hartu zuen bandera falta zela ikusita. Umekeria izan bada, lehenbailehen itzul dezatela.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402


TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409



KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA

TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

argazkitan



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua


gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

Santelmoak



Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

ilarzi




Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24

BAIEKE

2000ko maiatza, 68. zenb.

Santelmoak



INPERNUPE
 ELKARTEA

Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA
 IRUITZ

San Telmo, 12
 Tel. 860760

argazkitan



ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

ileapaindegia
I Z E T A
Urumea, 6 Tel. 862083

BALEIKE

2000ko maiatza. 68. zenb.

Belar artifizialeko futbol zelai berria irailerako

Zelai berriak ez ditu zaharrak bezalako soiluneak izango



Zumaiakoren denboraldia maiatzaren azken asteetan amaitzen denean, Aita Mari futbol zelaiaren belarrari agur egiteko garaia helduko da, datorren denboraldian belar artifizial gainean jokatuko baitira futbol partidu denak. Aldaketa hori egiteko lanak ekainaren lehen egunetan hastea espero da, eta lan guztiek hiru bat hilabete iraungo dute. Aipatu digutenez, irailaren hasieran edo erdialdean jada futboleak aritzeko aukera izango da.

Zelai berria jartzeko lanek 90 milioi inguruko aurrekontua izango dute. Bazirudien hasiera batean ez zirela lan hauek 2000 urtean egingo, Zumaiako Udalak ez baitzuen urte honetarako aurrekonturik, eta kreditu aldaketaren partidetatik futbol zelaiarena kendu egin baitzen. Hala ere, eta aurreko urteko Baleiken agertzen zen bezala, aurrekontuek aurrera egin dute, eta

aldaketa hori egiteko partida onartu da.

Belar naturala kendu ondoren, lur guztia konkpatatu egin beharko da, eta horren ondoren aglomeratu kapa bat botako da gainera. Aglomeratu kapa horren gainean beste kapa bat jarri eta beraren gainean joango da belar artifiziala. Ez dago guztiz finkatua lanak noiz amaituko diren, zelai artifiziala ezartzeko lanek eguraldi ona eskatzen baitute. Euria egiten badu, ezingo dira zelai berriko zatiak bata bestearekin lotu, horrek soldadura lana eskatzen baitu, eta jakina den bezala, eguraldi euritsuarekin ezin da lan mota hori egin.

Zelaiaren azpian ur deposito batzuk joango dira. Deposito horiek berebiziko garrantzia dute zelaiaren kontserbazioarako. Behar-beharrezkoa izaten da zelaia behin eta berriro

ureztatzea. Ureztatzeke erabiliko den ura deposito hauetatik atera eta kanoien bitartez zabalduko da, eta ondoren ur guztia berriro ere depositotara joango da. Euriaren bitartez zelai gainera eroriko den ura ere tuberien bitartez deponitara helduko da. Zelai guztia tuberien bitartez lotuta egongo da, eta horiek deponitotara arekin lotuta egongo dira. Zelaia ureztatu beharra dago, belar artifizialak, lehorra dagoenean izugarritzko erredurak sortzea baitaizka bere gainean irristatzen den jokalaria bati. Horretarako, beharrezkoa izango da partidua hasi aurretik zelaia ureztatzea eta baita atsedendian ere.

Erreduren arrisku hori zelai horren puntu txar eskasetakoa da. Alde onei dagokionez, esan beharra dago irailetik aurrera nahi diren futbol partidu denak jokatzeko egongo dela Aita Mari futbol zelaiaren, ez orain bezala. Luzetarako zelaiaren gain, alboetan lau ate berri jarriko dira, horrela futbol 7 delako partiduak jokatzeko aukera emanaz. Horrez gain, lanak amaitu ondoren futbol taldeetan aritzen ez diren zumaiarrek ere zelai berriaren jokatzeko parada izango dute, belarra ez baita orain bezala izorratzen. Belar artifizial honek, ondo zaintzen bada, hamar urteko bizitza du. Nahiko denbora, hainbat eta hainbat futbol partidu ikusteko.

◀ JUAN LUIS ROMATET

julio curiel
PELLONERO
G
Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

Larrañaga
Juanjo II
HARATEGIA URDAITEGIA
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20



Trapaiak irabazi du berriro Hondartzako Futbol Txapelketa. Santelmotako bigarren larunbatean jokatu ziren plaierotako finalak, eta bigarren urtez jarraian Trapaiakoak izan dira nagusi. Kopa Inperupek erdietsi du.

Zumaiako zesta-punta eskolako hiru pilotari gazte, Luis Osa, Jakoba Peña eta Ruben Gonzalez, Estatu Batuetara joan ziren eta bertako New Port Frontoian profesional mailan arituko dira. Azken urteotan, asko izan dira Zumaiako zesta punta eskolan aritu eta gero, arlo profesionalera pasa direnak, oso etekin onak lortuz gainera. Hau dena Eustakio Adurriaga tolosarrari zor zaio, hau da, eskolako entrenatzaileari, zumaiar gazteekin egindako eguneroko lanari esker. Joan aurretik, bakoitzari txapel bat eman zioten, eskolako orogarria izateko eta datorkien etapa berrian zorte ona izan dezaten.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Baleike Zumaiako herri aldizkariaren seigarren urteurrenaren aitzakiarekin, komiki lehiaketa honen beste edizio bat antolatu dugu. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiarrak tentatu nahi ditugu lan pixka bat egitera. Anima zaitzete parte hartzera!

1. Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
2. **Pertsonaiak jatorrizkoak** eta argitaratu gabeak izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde, edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
3. Marrazkiak **txuri-beltzean** eginak izango dira, eta edozein teknika erabili ahal izango da.
4. Lanak bakarka edota talde lanean egindakoak aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, **euskarazko lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa** da gurea.
5. Lanak 2000ko uztailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

FORONDA KULTUR ETXEA 20750 ZUMAIA

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean "Zumaiako VI. Baleike komiki lehiaketa" eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez sobreetan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

6. Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuaren erdi alderako emango dute aditzera beren erabakia.

7. Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitatearik ez balute, sariak eman gabe gera litezke .

Bestalde originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da bazterten.

8. Honako sari hauek ezarri dira:

1. saria	50.000 pta.
2. saria	30.000 pta.
Zumaiar onenarentzat	20.000 pta.

9. Saritutako lanak Baleikereren jabegoan geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.

10. Saritu gabeko lanak Forondan egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean.

Jasotzen ez diren lanak Baleikereren jabegoan geratuko dira.

11. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzarik kasuak antolatzaileen iritzira argituko dira.

VI. BALEIKE komiki lehiaketa



KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

AIZPURUA
LIBRERU
DEND
A
Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Zumaian egindako bi laburmetraia zahar berreskuratu ditu Euskadiko Filmmategiak

1924 eta 1930ean eginikoak dira, eta ziurrenik San Pedrotarako Zumaian ikusi ahal izango ditugu



Zumaiaiko argazki zaharrak ikustera ohituta gaude azken urteotan, zorionez bilduma ederra osatu baita guztion borondate onarekin, baina Zumaia buruzko pelikula zaharrak zeudenik ere ez genekien gehienok. Maiatzaren 4ean Euskadiko Filmmategiak gure herrian egindako bi pelikula berreskuratu dituela iragarri zuen. Bata 1924ko abuztuaren 25ean dago filmatuta, eta "Ongintzako txekorketa Zumaian" du izenburua. Bestea, 1930eko maiatzaren 4koa da, eta bertan Arritokietako Andra Mari amabirjinaren koroazioa jasotzen da. Bi laburmetraiak Jose Maria Martiarenak egin zituen.

Ongintzako txekorketa Zumaian

Hamar minutuko iraupena du lehen film honek, zuri-beltzekoa da eta mutua. Pelikulan kontatzen da Juan Belmontek, Ignacio Zuloagak eta Ortega y Gassetek ospitale-babesetxe baten alde dirua biltzeko ongintzako txekorketa bat antolatu zutela. Pelikulan txekorketa bera

ikusten da, bertan garaiko torero onenak parte hartu zutelarik. Bigarren zezena Juan Belmonterentzat zen. Zezen handia eta zagarra zen, eta nagusitu egin zitzaion Belmonteri, harrapatu egin baitzuen, zauri larririk egin gabe.

Arritokietako Andra Mari

Bigarren pelikula hau ere zuri-beltzekoa da eta mutua, baina lehena baino laburragoa (3:30). Pelikula honetan Arritokietako Andra Mari Amabirjinaren koroazio ekitaldiak ikusten dira. Zumaia goitik behera apaindu zuten, eta ekitaldian garaiko gotzain zen Mateo Mujikak eta Forondako Markesak hartu zuten parte, besteak beste. Orduko alkatea Cosme Iraundegi zen, eta bera ere ageri da ekitaldian. Garai hartako kronikek diotenez, egun hartan Zumaia 12.000 bisitaritik gora etorri ziren.

◀ JUAN LUIS ROMATET



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



Tel. 143278

ZINE FORUM

Maiatzak 25, osteguna.

Miedo y asco en las Vegas (1998)

Zuz: Terry Gilliam

Akt: Johnny Depp, Benicio del Toro, Tobey Maguire, Christina Ricci, Cameron Diaz

Azken urteotan amerikar zineak eman duen pelikula martzianoenetako batekin emango zaie amaiera pasa den urteko urrian hasi zen 1999/2000 zine forum emanaldiei. Denetarik ikusteko aukera izan da zortzi hilabete hauetan: dramak, komediak, klasikoak, dokumentalak, etab. Azken saio bezala, Ostarrenakoek Monty Python taldeko kide izandako Terry Gilliam-en azken lana aukeratu dute: *Miedo y asco en Las Vegas*.


Johnny Depp-ek protagonizaten duen film hau batere sortetik gabeko maisu-lan bat da. Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren, ia ezkutatu egin zuen distribuzioaz arduratzen den enpresak. Beldurtuta edo, justu-justu, hiri handietan soilik ikusteko parada izan da, besteok izorratu egin behar izan dugu.

*Miedo y asco en Las Vegas*ek Hunter S. Thompson idazle eta kazetari ipamerikarrak 70eko hamarkadan egin zuen bidai baten kronika egiten du. Gizako hau kolkorain drogaz bete eta bereak eta bi egiten aritu zen Las Vegas hirian. Hasera batean moto laisterketa bati buruz idaztea zen bere lana, baina hori egiteaz aparte, beste edozer gauza egin zuen Thompsonek bera bezalako ero baten laguntzarekin.

Johnny Depp (*Eduardo Manostijeras*) eta Benicio del Toro (*El funeral*) dira protagonista nagusiak, baina bertatik pasatzen dira beste hainbat aktore ezagun: Christina Ricci (*La tormenta de hielo*), Tobey Maguire (*Las normas de la casa de la sidra*), Cameron Diaz (*Very bad things*), etab. Gilliam-ek historia bat kontatzeko arau guztiak pikutara bidali eta askatasun osoarekin jardun du film hau egiten. Badirudi hartu duen askatasuna gehiegizkoa izan dela, ia inork ez baitu filma hau ikusi. Orain aukera paregabea dago pelikula hau Zumaian ikusteko. Ez ezazue pikutara bidali.

IDAZLEA: Henry James

El altar de los muertos y otros relatos



Hilabete honetan, Henry James handiaren ipuinen liburu bat aukeratu dugu. Bere izena "El altar de los muertos y otros relatos" da, eta izen berak ondo adierazten duenez, misterio eta terrorez betetako ipuinak dira, denak ere Henry Jamesen

estilo ederrarekin indatziak. Hala ere oraingoan, liburu honetaz baino, liburu hau argitaratu duen etxeaz aritu nahi genuke, benetan merezi du eta. Argitaletxe honen izena Valdemar da. Nahiko etxe txikia, baina argitaratzen dituen liburuak maitasun handiz tratatzen dituena. Literatur munduan klasikoak diren idazle askoren lan ezezagunenak argitaratu ditu etxe honek, hala nola Daniel Defoeren piratei buruzko liburu historiko bat, Jack London eta alkolaren arteko harremanak biltzen dituen autobiografia, Arthur Conan Doyle, Sherlock Holmesen aitaren, ipuinen bildumak, Robert Louis Stevensonren Hegoaldeko Itsasoetako ipuinak, eta abar. Abenturetako liburuak, istorio gotikoak, terrorezkoak eta beste hainbat generotako altxorrak aurki daitezke argitaletxe honek kaleratutako liburuen artean. Hilabete honetan Henry Jamesen liburu hau aukeratu badugu ere, beste edozeinek leku hau inongo arazorik gabe bete zezakeen, denek ere maila bikaina baitute.

ile-apaindegia

Maxi

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
 - .Banakakoak
 - .Kolektiboak
 - .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

maiatza

FESTAK

San Pankrazio jaiak Estazio auzoan
 ▶ maiatzaren 26tik 28ra

LEHIAKETA

Zumaia loretan: herriko balkoi eta leiho lehiaketa. Zumaia leiho eta balkoi txukunenak eta lorez hobeen jantziak sarituko dira. Guztira sei sari banatuko dira, hiru auzotan banatuta: Alde Zahar inguruak, Poligonoak eta Paolaldea, Amaia, Itzurun eta Larretxo inguruak. Auzo bakoitzeko lehen saridunak 25.000 eta landare bat eta bigarrenak 10.000 eta landare bat jasoko ditu.
 ▶ Ekainaren 27an.

DEIALDIA

San Pedrotako egitaraurako argazkiak eskatzen ditu Udalak. Argazki hauek ekainaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira: festak, kalegiroa, herriko txokoak, etab.

UDALEKUAK

Begirale izateko baldintzak eta beste informazio dena Foronda eta Ludotekan. Haurrentzat, aldiz, egutegia, matrikula eta gainontzekoen berri Ludotekan.

FORONDAKO PINTURA TAILERREKO LANEN ERAKUSKETA.

▶ Maiatzak 12tik 28ra.
 Foronda eta Oxforden

EASO ABESBATZAREN KONTZERTUA

▶ Maiatzak 12, 19.30etan.
 Aita Mari zinean

SANTI BANDAREN ORGANO KONTZERTUA

▶ Maiatzak 20
 Parrokian

DIAPPOSITIBA EMANALDIA:

Julio Villaren "Tranogorritxu Ertamerikan".
 ▶ Maiatzak 18, arratsaldeko 7etan.
 Forondan

ZINE FORUM SAIOA:

Terry Gilliamen "Miedo y asco en Las Vegas".
 ▶ Maiatzak 25, gaueko 10.15etan,
 Aita Mari zinean

DIAPPOSITIBA EMANALDIA:

Juan Ramon Llavoriren "Los colores de la vida. Retratos de la India".
 ▶ Ekainak 2, arratsaldeko 7.30etan
 Forondan

MUSIKA ESKOLAREN KURTSO AMAIERAKO KONTZERTUA

▶ Ekainak 8 eta 9, arratsaldeko 7etan,

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

Helduentzat
 ▶ Astegunetan, 9.30 • 13.30 eta 16.00 - 20.00.
 Larunbatean, 10.00 - 13.00
 Haurrentzat
 ▶ Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

▶ Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.
 ▶ Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
 ZUMAIA

ILE APAINDEGIA



Etxezarreta, 19 Tel. 862342



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
 Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

Rosi
 garbiketak

* Etxeak eta dendak
 * Enpresa eta auzo lanak
 * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
 Tel. 861670

Benito Lertxundi eta Pablo Milanés XVI. Nazioarteko Musika Jaialdian



Udaren etorrerarekin musikaz betetako gauak ere hurbiltzen hasiak dira. Zumaiako Nazioarteko Musika Jaialdiaz ari gara, noski. Jada XVI. edizioa betetzen duen jaialdi honek izango dituen ikastaroen zerrenda kalean dago eta dagoeneko badakigu, baita ere, abuztuan zehar Zumaiain abestuko duten kantari batzuen izenak: Benito Lertxundi oriotarra eta Kubako Pablo Milanés.

Aurreko urteko jaialdiarekin alderatuta, ikastaro berri bat aurki dezakegu Ubillos Jauregian eskainiko direnen artean. Guztira zazpi ikastaro izango dira, denak ere nazioarte mailako musikariek emanak: bibolina eta ganbara musika Corrado Bolsiren eskutik, biola eta ganbara musika Paul Corteserekin, biolontxelo eta ganbara musika Sandro Meorekin, pianoa eta ganbara musika Ricardo Cecchetti-rekin, klarinetea eta ganbara musika Enrique Pérezekin, oboea eta ganbara musika Eduardo Martinezekin eta azkenik, eta berrikuntza bezala, fagota eta ganbara musika David Tom's irakaslearekin. Azken musika tresna horren ikastaroa, fagotarena alegia, izango da edizio honetan eskainiko

den ikastaro berria. Jaialdiko ardura-dunek esan digutenez, estatu mailan orain arte ez zegoen fagotaren ikastarorik udan izaten diren jaialdietan. Hori dela eta, eta orkestraren barruan fagotak duen garrantziaz konturatuta, eta kalean kontzertu txikiak emateko orduan fagotak ematen dion berezitasuna dela eta, ikastaro berri hau martxan jartzea erabaki da.

Ikastaroez gain, noski, urtero bezala lehiaketak era izango dira bertan izen ematen duten ikasleen artean. Bi lehiaketa ezberdin aurki ditzakegu jaialdian. Lehena Bakarleri batek Orkestrarekin kontzertu bat emateko lehiaketa da. Lehiaketa hau lau arlotan banatzen da: arkuak, haizea, pianoa eta taldeak. Lehiaketa honetan irabazle bakarria izango da, 70.000 pezetako saria jasoko du, eta Orkestrak abuztuaren 12an eskainiko duen azken kontzertuan bakarleri bezala arituko da. XVI. edizio honetako bigarren lehiaketa Ganbara Musika lehiaketa da. Orotara bi sari banatuko dira partaideen artean. Lehena epaimahaiaren saria izango da,

130.000 pezetakoa, eta bigarrena, publikoaren saria, 30.000 pezetakoa.

Dirulaguntzei dagokienez, guztira 1.300.000 pezetako aurrekontua aurreikusten da. Diru kopuru hori dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da. Hona etorri froga bat pasa eta ondoren orkestran sartzen diren musikariek jasoko dute dirulaguntza. Baina, musikariek ez dute dirua eskuan jasoko. Hemen igaroko dituzten egunetako alokairuko gastuak ordainduko zaizkie.

Bi edo hiru musika laborategi izango dira jaialdiko edizio honetan. Laborategi horietan, ikasleek irakasleekin batera jotzeko aukera izaten dute. Esan bezala, oraindik ez dago ziur orotara zenbat laborategi izango diren. Arduradunek ziur dakitena zera da: lehen musika laborategia Mari kaleko enparantza txikian izango dela. Laborategi horietan ezingo dute ikasle guztiek jo, horregatik talde txikiak eratuko dira jaialdian zehar kontzertu horiek emateko.

OPTIKA ZUMAI A



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C beheha Tel. 143404 - 860012

Ohikoa den bezala, Jaialdiko Orkestra bertan parte hartzen duten ikasleek eratzen dute. Ikasleak Zumaiara etorri eta bertan aurkitzen dituzten partituruakin arituko dira Orkestra hau aurrera eramaten. Aurreko urtean bezala, Orkestrako zuzendaria Manel Valdivieso kataluniarra izango da. Hasiera batean, zuzendari euskalduna ekartzeko asmoa zuten Jaialdiko arduradunek, baina izan diren gorabehera batzuk direla eta, aurreko urteko zuzendaria ekartzea erabaki da. Hori bai, ziurtatu dute datorren urtean, Orkestrako zuzendaria euskalduna izango dela.

Ikasleen kopuruak ere gorantz egingo duelakoan daude Jaialdiko arduradunak. Azken bost urteetan 30 ikasletik 80ra igo baldin bada Zumaiara etortzen diren ikasleen kopurua, aurtengoan kopuru horrek gora egingo dutela uste dute. Jada hasiak dira kanpoko ikasle batzuk telefono deiak egiten Jaialdiaren berri izateko.

Kontzertuak

Aurretik aipatutako ikastaro eta laborategiek berebiziko garrantzia badute Musika Jaialdiarentzat, herritarrentzat garrantzi handiagoa dute abuztuan zehar eskainiko diren kontzertuek. Oraindik ere kontzertu

horien datak zeharo finkatu gabe badaude ere, Zumaian izango diren artista handiek beren onarpena emana dute.

Eguraldiak hala uzten badu behintzat, ikasleek bizpahiru kontzertu emango dituzte herriko kaleetan. Horietatik bi aurreko urteko lekuetan eskaintzea pentsatzen da: Goiko eta Trapaia tabernetako plaza txikian, eta bestea Paolbidean, Aita Mari kafetegiaren aurrealdean. Hasiera batean, bi kontzertu horiek gauez izango lirake. Hirugarren kontzertua, aldiz, egun argiz izango litzateke, Upela plaza inguruan, ziur aski Mujika etxearen aurrealdean.

Lehen kontzertu handia abuztuaren 1ean, asteartean izango da, ziur aski Maria eta Jose ikastetxeko aretoan. Bertan izango da Benito Lertxundi oriotarra, bere taldearekin. Ezin izango da ekarri Zumaiara Benito Lertxundi eta Euskadi Orkestraren arteko ikuskizuna, aretoko eskenatokiak ez baitu lekurik musikari guztiak sartzeko.

Igandean, aldiz, abuztuaren 6an, Jaialdiko kontzertu nagusia izango da. Bertan izango dugu Pablo Milanés kubatarra. Aurtengoan, gainera, lekua aldatzea erabaki da. Aurreko urtean Itzurun hondartza aukeratu zen Luar Na Lubreren emanaldirako, baina

hainbat inkomodidade, arrisku eta arazo izan ziren eta, horregatik, oraingoan Balenciaga Astilleroen alboan eraiki den moila berrian jarriko da eskenatokia. Horrek taula lur finko batean ezartzea ekartzen du besteak beste. Gainera, autoa uzteko leku ugari aurki daiteke inguruan. Kontzertu hau estatu mailan eskainiko dituen emanaldien barne sartzen da, eta bertan disko berria aurkezten du.

Bi horiek dira Jaialdiko kontzertu nagusiak, baina, noski, beste hainbat kontzertu ere izango dira Jaialdiak irauten dituen bi asteetan zehar: aurtengoan San Pedro parrokian emango den irakasleen kontzertua, urtero San Pedro abesbatzak ematen duena, etab. Aurreko urteetakoekin alderatuz, badirudi aurtengoan ordutegiak aldaketa batzuk izango dituztela. Oraindik ere guztiz finkatu gabe dago, baina aipatu digutenez, baliteke kontzertu "txikiak" arratsaldeko 8:30etan hasia. Bi kontzertu handiak, aldiz, beste ordu batean izango dira (zehaztuko dute).

Datorren uztailaren 31n hasiko da XVI. edizio hau. Amaiera, berriz, abuztuaren 12an emango zaio. Tartean musika ugari entzuteko aukera izango dugu. Ez dezagun aukera galdu.

◀ JUAN LUIS ROMATET


SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

fidatzeko baimen guztiak



INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323



liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak

ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

ttikittaka






BALTASAR ETXABE 2/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAI

TXALAPARTA O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

IRAGANEAN, GIZAKIA ILARGIRA IRITSI ZENEAN, EGUNEN BATEAN "PLANETA GORRIRA"
ERE IRITSIKO GINELA ESAN ZEN...





MARTITZ

ETA NI NAIZ LEHENENGOA


TXATXI!

BENO, LEHENENGO PAUSOA BEHINTZAT
GOGOZ EGIN BEHARKO DIAT, EA URRATS
ITXUROSOA UZTEN DUDAN!




TOKI ASPERGARRI
SAMARRA DIRUDI, ORDEA,
"PLANETA GORRI" HAU...

BAINA, BAPATEAN...



DEMONIO !!!

EZUSTEKO BIKAINA.



BESTE PAUSO ERRALDOIA
GIZADIARENTZAT ETA
BLA, BLA, BLA



BAINA, ZEIN ARRAIO
ZARETE ZUEK ???

LASAI MOTEL,
TELEBISTAKOAK GARA, EZ
ZENUEN BA PENTSATUKO
HONELAKO ERREPORTAIA
ESKAPATZEN UTZIKO
GENUENIK, EZTA?




GAINERA, ZERTAN BIDALI
TIPO BAT HONAINO
INORK IKUSI BEHAR
EZ BADU?



PAFI!

A ZE EROKERIA



TIRA, ARMSTRONG-EN PAUSOAK ERE
NORBAITEK GRABATUKO ZITUEN

ETA 2

argazki zaharra



Hor dago Angel barberoa lanean beti bezala. Hemendik pasatzen naizen bakoitzean erdi lotsatuta begiratzen det barru aldera eta batzuetan Angelek bere begiak jaso eta ikusten baldin banau irriparrak irteten dio eta nik ospa egiten det. Gu ez gera hona etortzen ilea moztera, nahiago izaten degu Marineko izkiñan, izen bereko kalerako eskaileren ondoan sarrera duen Juanito pelukeroenean sartu, honek txiste pila bat eukitzen du-eta. Eta nahiz eta txandaren zain mutil asko egon ez zaigu batere axola izaten aulkian edo lurrean eserita El pequeño cheriff, Castor el invencible, TBO, Hipo, Monito y Fifi, Zarpa de león, El inspector Dan, El hombre enmascarado, Suchai, El guerrero del antifaz, Juan Centella, Hazañas bélicas, El espadachín enmascarado, Pacho Dinamita eta abar letzen arratsaldea ematea edo, denak irakurtzeko astirik izaten ez dugunez, marrazkiak ikusten, txanda ia beti geuk uste baino lehenago ailegatzen zaigularik. Luistarren zentro aurrean, beste espaloian dagoen Benantxioneko barberiara oso gutxitan joaten gera, amak edo aittak hari ere dirua eman behar zaiola esaten digunean bakarrik, hara beti zaharrak joateaz gain, marrazkirik gabeko periodiku zaharrak eta "Marca" errebista aspergarri bat besterik ez dira-eta egoten. Angel Barberoenean ere ez det uste txisterik egoten denik, eta zaharrak bizarra moztera joaten dira, kalean pasaran hala aplikatu zait behintzat neri beti. Dena den, gure koadrilako inor ez gara Angelenara ilea moztera sartu. Beno, ba, hori. Esatera nijoana. Orain dela aste gutxi, hilabete edo izango da beharbada, amak Barbero Kojuarengana bidali niñun mandatu bat egitera. Sartu nintzan eta "amak esan dit hogeita hamarreko bi bisagra emateko" esan nion Angeli. Honek zorrotz begiratu "Aizak mutil, nora bialdu hau amak?" galdetu zidan. Ni lotsatuta eta, zergatik ez det esango, baita beldurtuta ere begiratu ebakitzaile haren pean behera begira eta nire hitzek zer ondorio izan zezaketen ikarati, gizon haundi bati bere akats bat ni bezalako mutilkoakor txiki eta eskasak aurrez aurre esatea ez baita txantxetakoa, ahots mengel batez "Ba... Barbero Kojuarengana" erantzun nion. "Ederki! -bota zidan sekula baino herrenka handiagoa eginez niregana hurreratuz-. Ni barberua nauk. Ni kojua nauk. Baina ez nauk Barbero Kojua!" Laster asko ikasi nuen, bai, zein zen Erribera kaleko Barbero Kojuanekeo denda!

TXOAZKIN

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.200 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 26 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
- mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak -
ahakularitza teknikoak.
Ekoizazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

TXOKOA
T
A
B
E
R
N
A

Artadi auzoa
Tel. 862189

AROZTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsiak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoak

Basusta bidea z/g Tel. 143505

RPS: 034/97




"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazio zentrua

Aita Mari poligonoa, 3. blokea. Tel. 943 86 16 91

Z U M A I A



MEDIKUNTZA OROKORRA

Rosa Azkue doktorea

KIRURGIA OROKORRA

Juan Ignacio Alberdi doktorea

ERREHABILITAZIOA

Maria Etxaniz doktorea

FISIOTERAPIA ETA

INDARBERRITZE FUNTZIONALA Inma Cabanillas anderea

KIROL MASAJEA ETA TERAPEUTIKOA

KIROL ETA ARIKETA

FISIKORAKO MEDIKUNTZA

J.M. Gonzalez Aramendi doktorea

- Kirol gaitasuna neurtzeko azterketak
- Esfortzu frogak
- Kirolerako balorazio eta segimendu medikoa

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatuz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



DORNUTEGI

SUKALDEKO HALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51

- S Sukalderako hornikuntza diseinuak.
- Lanen zuzendaritza.
- Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.
- Kalitate-prezioan parekorik ez.

